

Batzen gaituena.

Nafarroa hobetzen lagundu nahi duen herritarren mugimendua sortu da. Ez gara alderdi politikoa, eta inoiz ez gara izango.

Besterik gabe, ideiak proposatzeko beste modu bat aukeratu dugu, asmo erabat zeharkakoarekin eta integratzailearekin, errespetua eta konkordia jarritz gizarte elkarrizketaren palanka gisa.

Herritar garen heinean, uste dugu ez ditugula eskubideak soilik, eginbeharrak ere baditugula. Eta herritarrari dagokio, baita ere, gizarte irekia, heldua eta tolerantea eraikitzeko erantzukizuna.

Ikuspegi desberdinek gehitu egingo duten, norbanakoaren askatasuna errespetatu egingo den, eta beste modu batera pentsatzen duena hitzez edo era fisikoz bortxaturik egongo ez den Foru Erkidegoa nahi dugulako.

Espazio publikoa birsortzen lagundu nahi dugu, gizarte zibilak dagokion leku protagonista berreskura dezan.

Alderdi politikoak nafarren benetako arazoez arduratzea nahi dugu, akordioaren eta elkarrizketaren bitartez, hamarkadatan egin dugun bezala, banakako 640.000 nortasun desberdin eta gizarte, kultura, hizkuntza eta baita paisaia errealitate desberdinak dituen erkidego bateko bizikidetza apurtu dezaketen nortasun kolektiboari buruzko hitzaldiak eta proiektuak gaituz.

Gure politikariei gogoratu nahi diegu aldi baterako aukeratu ditugula ordezkari eta publikoa den horren administratzaile gisa, inoiz ez gure borondateen betiko jabe edo norbanakoen ametsen eta handinahien protagonista gisa.

Nafarroan errealitate guztietarako bizikidetza espazio komunak bilatzeko gai izan nahi dugu, beti ere Espainia barruan eta, ondorioz, ilusioz betetzen gaituen eta Europar Batasuna izena duen nazioen integrazio proiektu horren barruan.

Nafarroa Espainian eta European nabarmentzea nahi dugu, harmonian, gizarteratzean eta herritar guztientzako aukera berdintasunean oinarrituriko garapen eredu gisa.

Nafarroako Foru Erkidegoa talentua eta berrikuntza erakartzeko gune izatea nahi dugu, aurrerapen ekonomikorako, sozialerako eta kulturalerako motor gisa, etorkizunean horiei eusteko berme izateko.

“Horregatik guztiarengatik sortu da Nafarroako Gizarte Zibila. Mugi zaitez batzen gaituenaren alde”.

Gure printzipioak

Edozein alderdi politikotik eta diru-laguntza edo bestelako edozein laguntzatik kanpo dagoen ekimen herritarra gara. Sociedad Civil Navarra – Nafarroako Gizarte Zibila ez da alderdi politikoa.

Gizarte eta kulturaren eta hizkuntzaren aldetik errealitate desberdinak izan arren, batzen gaituzten oinarrizko lau printzipioekin bat datozen herritarren iritziak eta gogoetak era kritikoan eta eraikitzeke xedez bideratzeko gai izan nahi dugu.

1. Norbanakoaren askatasunaren, errespetuaren eta berdintasunaren defentsa, Eskubide Estatuaren eta Konstituzioaren barruan.

2. Nafarroan bizi diren herritar guztien arteko konkordiaren eta akordioaren balioa, aurrerapen ekonomikoa, soziala eta kulturala bultzatzeko.

3. Gure hizkuntzak, gaztelania eta euskara, hizkuntz ezarpen ekintzekin loturik inoiz joan behar ez duten komunikaziorako tresna gisa ulertzea.

4. Nafarroaren eremu autonomikoarekin eta foralarekin identifikatzea, Espainia eta Europa barruan, edozein proiektu sezesionistatik urrun.

“Mugi zaitez batzen gaituenaren alde”.

Helburuak

1.- Gure helburu nagusia Nafarroan atmosfera irekia eta solidarioa arnastea da, gero eta globalizatuagoa den mundu batean Espainia eta Europa kosmopolitek planteatzen dituzten erronkei aurre egiteko gai izango dena. Gaur egungo munduak planteatzen dizkigun erronketan aurrera egiten jarraitu behar dugu, gure lurra historiaren, kulturaren eta hizkuntzaren ikuspegietatik duen aberastasun handia baztertu gabe.

Horretarako, bere aniztasuna, zorrotasuna eta eszena publikoan konkordiaren, errespetuaren eta askatasunaren aldeko proposamenak egiteko gaitasuna dela eta erreferente izango den iritzi korrante kritikoa eta positiboa bilakatu nahi dugu.

Horrez gain, alderdi politikoen ekintza eta diskurtsoa nortasun gatazkak sortzera ez bideratzea defendatzen dugu, herritar gisa dagozkigun arazoak konpontzera baizik: hezkuntza, enplegua, osasuna, pentsioak, gizarteratzea, aniztasunaren trataera eta ekonomiaren martxa egokia. Hau da, Nafarroaren oparotasunaren alde lan egitea eskatzen dugu.

2.- Bigarrenik, harago joan eta aurrerapausoa eman nahi duten Nafarroako herritarrak ordezkatu eta elkartu nahi ditugu, pentsamendu kritikoa den foro irekian, Nafarroako Gizarte Zibilean.

Nafarroako Gizarte Zibilaren printzipioekin identifikatzen diren herritar nafarren komunikazio bide eta etengabeko bozgorailu izan nahi dugu.

“Mugi zaitetz batzen gaituenaren alde”.